BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/14

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalaren ganeko Foru Arau Proiektuak ez dau eragin ekonomikorik izango

Jose María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalaren ganeko Foru Arau Proiektua aurkeztu dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aurrean, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek eskatuta. Bere agerraldian Iruarrizagak argitu dauenez, "Gure Lurralde Historikoko Kooperatiba Alkarteen araubide bereziaren eta 2014tik indarrean dagon Soziedadeen araubide orokorraren arteko integrazino hobea eragiten dauen erreforma teknikoa eta erabilitako arauzko teknikaren eguneratzea da". "Ez dau ezelan aldatzen kooperatibek Bizkaian daukien zerga tratamentua", adierazo dau.

Modu berean, 54 artikuluk osatzen daben Foru Arau Proiektu horrek "modu argian eta bananduta" arautuko dau zerga ondoreetarako babestu moduan izendatutako kooperatibei jagoken tributazinoa eta kalifikazino hori ez daukienei edo galdu dabenei jagokena.

Iruarrizagak azaldu dauenez, idazteko orduan erabili dan testuak lengoaiari jagokon barrikuspen sakona be jasoko dau, "genero ikuspegia integretako", gaztelaniazko bertsinoan batez be.

Taldeen txandan, Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, "erakunde publikoek kooperatiben defentsan bete behar daben lekuaren ganean gogoeta egiteko beharra" azpimarratu dau. EH Bilduko Arantza Urkaregi Foru Arauaren tramitazinoa aurrera eroatearen kontra agertu da "ez dagolako benetako txosten ekonomikorik". Horri jagokonez, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak, ez dala koantifikazinorik behar azpimarratu dau barriro, Foru Arau Proiektuak "ez dauelako eragin ekonomikoa izan daikean neurririk jasoten".

Foru Gobernua eusten daben taldeen aldetik, Isabel Cadaval sozialistak, "kooperatiba alkarteentzat dagon zerga arautegi esparruaren goitik beherako barrikuspena" egitearen garrantzia azpimarratu dau, alde batetik euren zerga araubide berezia 2014tik indarrean dagon Soziedadeen araubide orokorragaz integretako eta, bestetik, "egituraren ikuspegitik eukia egokitu ahal izateko".

Bukatzeko, Jesus Lekerikabeaskoa jeltzalearen eretxiz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak egin dauen beharra "egokia" da. "Alde batetik, kooperatiben ikuspuntura egokitzen da, eta, bestetik, 1997tik egin diran aldaketak ordenatu egiten dira", azaldu dau batzordekideak.

NOTA DE PRENSA

14/09/18

# El Proyecto de Norma Foral sobre Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia no tendrá una incidencia económica

El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha presentado esta mañana ante la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia, el Proyecto de Norma Foral sobre Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia. En su comparecencia, Iruarrizaga ha puntualizado que este documento normativo se trata de una “reforma técnica que efectúa una mejor integración del régimen especial de Sociedades Cooperativas de nuestro Territorio Histórico con el régimen general de Sociedades vigente desde el año 2014, y una actualización de la técnica normativa utilizada”. “En ningún modo innova el tratamiento  fiscal de las cooperativas en Bizkaia”, ha manifestado.

De igual manera, este Proyecto de Norma Foral compuesto por 54 artículos, regulará “de forma clara y separada” la tributación correspondiente tanto a las cooperativas fiscalmente denominadas como protegidas como aquellas que no tengan o hayan perdido tal calificación.

Según ha explicado Iruarrizaga, el texto también pretende incluir el resultado de la completa revisión del lenguaje empleado en su redacción “a fin de integrar la perspectiva de género”.

En el turno de los grupos la apoderada de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha recalcado la necesidad de “reflexionar sobre el papel de las instituciones públicas en la defensa de las cooperativas”. Arantza Urkaregi, en representación del grupo EH Bildu, se ha mostrado contraria a llevar adelante la tramitación de la Norma Foral por “la inexistencia de un informe económico real”. A este respecto, nuevamente, el Diputado Foral de Hacienda ha recalcado que no es necesaria una cuantificación puesto que el Proyecto de Norma Foral “no contiene medidas que supongan un impacto económico”.

Por parte de los grupos que sustentan el Gobierno Foral, la socialista Isabel Cadaval ha incidido en la importancia de que se lleve a cabo “una revisión completa del marco normativo fiscal para las sociedades cooperativas”, que por un lado integre su régimen fiscal propio con el régimen general del impuesto sobre sociedades vigente desde 2014, y por otro lado, “permita adecuar estructuralmente su contenido”.

Por último, el nacionalista Jesús Lekerikabeaskoa ha calificado como “adecuado” el trabajo desarrollado por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia. “Por un parte se adecua el punto de vista de las cooperativas y por otra parte los cambios dados de 1997 en adelante se ordenan”, ha explicado el juntero.